

DEBAko UDALA

2018SPLE0003  
3. BILERA: EZOHIKOA 2018-03-27

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ezohizko Udalbatzarra  
**Zenbatgarrena:** hirugarrena  
**Eguna:** 2018/03/27  
**Hasiera-ordua:** 19:30  
**Amaiera-ordua:** 20:20  
**Onarpen-eguna:** 2018/04/26

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**


PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA  
IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA  
AITOR SALEGI IRURETA  
ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA  
M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA  
MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN  
AIMAR LASA URKIRI  
ITZIAR IRIZAR BERISTAIN  
JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN  
UNAI LEKUBE ARANBERRI  
ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA  
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE  
IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

### **Bertaratzeak eta irteerak**


### **Gora-beherak**



## DEBAko UDALA

### **Aztergaiak:**

1. 18 S-AU 18 lursaila “Itziarko Poligonoa”. Hagazko S.L.k sustatua. Xehetasunen Azterlanaren aldaketari behin betiko onespina emateko proposamena.
2. Debako Udaleko 2017ko kitapenaren berri ematea (Debako Udala, Deba Musikal Patronatua, Arte Eskola Patronatua, Itziarko Toki Entitate Txikia).
3. Debako hondartzaren (Santiago eta Lapari) erabileraren erregimena arautzen duen ordenantza. Hasierako onespina emateko proposamena.
4. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### **1.- 18 S-AU 18 lursaila “Itziarko Poligonoa”. Hagazko S.L.k sustatua. Xehetasunen Azterlanaren aldaketari behin betiko onespena emateko proposamena.**

Zinegotziek eskuartean dutena Hirigintza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamena da.

#### ***Aurrekariak***

Hagazko S.L.-k sustatutako eta XX Bide, Kanal eta Portuetako injenieriak idatzitako 18.S- AU 18 lursailaren “Itziar poligonoa”, Xehetasunen Azterlana izapidetzeko eskaera jaso zen Udaletxean.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. Artikuluan jasotzen da xehetasunen-azterketak izapidetu eta onartzeko onartzeko eman beharreko urratsak.

**“98. artikulua.**– Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.

- 1.– Xehetasun-azterketei eskumena duten udalek emango diete hasierako onespena hiru hilabeteko epean.
- 2.– Hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.
- 3.– Xehetasun-azterketei behin betiko onespena ematea udalari dagokio; horretarako, hiru hilabeteko epea izango du, hasierako onespena ematen zaienetik. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, xehetasun- azterketa alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.


Beraz, tramitazioari dagokionez, hasierako onarpena eman zitzaion alkatetza Dekretu bidez 2017ko abenduaren 21ean.

Jarraian, jendaurrean jarri zen 20 egunez, azken argitalpenetik kontatzen hasita. Horretarako, 2018ko urtarrilaren 8ko datarekin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia eta egunkarian eman zen jakitera 2017ko abenduaren 29an. Udaleko iragarki taulan ere jarri zen eta bizilaguneai jakinarazpenak bidali zitzaizkien.

Legez ezarritako epean ez da alegaziorik egon, beraz behin betikoz onartuko du Udalak.

#### ***Erabakia.***

Hirigintza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamena berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du ondoko erabakia, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla, horretarako aintzat hartu du Hirigintza eta Etxebizitza batzorde informatzailearen proposamena.



## DEBAko UDALA

**Lehenengo.-** Debako Arau Subsidiarioetako, 18S- AU 18 lursaila "Itziar Poligonoa", Xehetasun Azterlana behin betiko izaeraz onartzea.

**Bigarren.-** Erabaki hau Hagazko S.L.ri jakinaraztea.

**Hirugarren.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

### **2.- Debako Udaleko 2017ko kitapenaren berri ematea (Debako Udala, Deba Musikal Patronatua, Arte Eskola Patronatua, Itziarko Toki Entitate Txikia).**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

### **3.- Debako hondartzaren (Santiago eta Lapari) erabilera-erregimena arautzen duen ordenantza. Hasierako onespina emateko proposamena.**

Zinegotziek esku artean dutena Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren batzorde informatzailearen proposamena da.


#### ***Erabakia.***

Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamar bilkuran direla, horretarako aintzat hartu da Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren batzorde informatzailearen proposamena:

**Lehenengo.-** Debako hondartzaren (Santiago eta Lapari) erabilera-erregimena arautzen duen ordenantzari hasierako onespina ematea.

**Bigarren.-** Ordenantza jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, apirilaren 2ko, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren Legearen 49. artikuluari jarraiki, interesdunek beharrezko ikusten dituzten erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izateko. Jendeari jakinarazteko aginduta dagoen epea amaitutakoan, inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez bada, aipatutako Araudia, behin betiko onartutzat joko da.

Espedientea Debako Udaleko Idazkaritzan dago (Portu kalea, 1), nahi duenak ikus dezan, goizeko 8:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean.



## DEBAko UDALA

Erreklamazioak eta iradokizunak egin nahiz izanez gero, epe horretan bertan egin behar dira, eta Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu. Horiek erabakitzeko ahalmena Udalbatzak du.

### **4.- Eskariak eta galderak.**

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du Martxoaren 8aren bueltan Udal sindikatuek kaleratutako idazkiaren inguruan eta udal langileek proposatutako idazkiaren inguruan. Martxoaren 8ko idazkian soldata-aldeari egiten zitzaion erreferentzia eta Jose Luis Albizu zinegotziak Berdintasuna batzordean horri buruzko informazioa eskatu zuela esan du. Neurriak hartu behar direla esan du eta idazki horietan aurreko agintaldiari erreferentzia egiten zaionez, gogorarazi du bitariko batzordea egin zela eta horretan hitzarmen bat landu eta sinatu zela, soldata igoerak egin zirela eta aurrerapausuak eman zirela. Deigarria suertatzen zaio langileen idazkian mobbing kasu bati egiten zaiola erreferentzia. Eskatu du Barne Erregimena eta Pertsonala Batzordearen bilera egitea, agintaldi osoan bakarra egin baita eta horretan parte hartzeko ez zitzaien abisurik eman.

Alkateak erantzun dio bi idazki egon direla, bata langile laboralen ordezkariak aurkeztuta zeinetan erreferentzia egiten zitzaion emakumeen eta gizonen soldata-alderari. Adierazpen horrek harridura sortu ziola eta langileen ordezkariarekin elkarrizketa bat eduki ondoren horrek argitu ziola soldata diferentziek ez zutela oinarria generoan.

Beste idazkia berriz, udal langileen izenean aurkeztu da eta esan du bertan jasotako hainbat eskakizunei erantzuna emateko jadanik lanean dagoela Udala, plantillaren azterlana egiten eta lan eskaintza publikoa definitzen. Bestalde, lanpostuen eginkizunak definitzeko ez du arazorik ikusten ezta negoziaketarako ere. Mobbing-aren gaia dela eta azaldu du arrisku psikosozialen ebaluaketa egin zela eta txostenean ez dela horrelakorik jasotzen. Barne Erregimena eta Pertsonala batzordea egin beharra dago eta Maiderrri egiten dio gonbita berak ere horretan parte hartzeko eta irtenbide bat topatzeko.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

**IDAZKARIA**

Deban, 2018ko martxoaren 27an